


Oscar Wilde kalera, LGBT mugimenduarekin batera



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Reading (Ingalaterra), 1897ko maiatzaren 19a. Oscar Wilde (1854-1900) idazle irlandarra espetxetik irten zen, “sodomia eta lizunkeria larriagatik” bi urtez giltzapean egon eta gero. Lauzpabost egun lehenago, maiatzaren 14an edo 15ean, Berlinen, Batzorde Zientifiko Humanitarioa (*Wissenschaftlich-humanitäres Komitee*, WhK) sortu zen, harreman homosexualak debekatzen zituen Alemaniako zigor kodeko 175. artikulua aurkako kanpaina abiatzeko; LGBT eskubideen aldeko lehen erakundea izan zen.

Duela 125 urte bi gertakariok egun gutxiren buruan kointziditza kasualitatea da, baina garai hartako homosexualen aurkako giro bortitza, ordea, ez. Oscar Wilde pertsona ezaguna zen eta hari ezarritako zigorra eredugarria izatea bilatu zuten. Epaia oihartzun handia izan zuen, eta sexu nahiz genero askatasunarekiko intolerantzia gordintzea eragin zuen, ez soilik Britainia Handian, Europa osoan baizik. Artista homosexual askok errepresaliak jasan zituzten. Alemanian, esaterako, Paul Höcker margolariak erbestera jo behar izan zuen.

Alemanian 127. artikulua indarrean zegoen, gizonezkoen arteko sexu harremanak kartzelarekin zigortzen zituena; legeak ez zituen emakumeen artekoak jaso ere egiten. Eta lege horren aurka egiteko bildu ziren Magnus Hirschfeld sexologoa, Max Spohr edi-



Duela 125 urte LGBT eskubideen aldeko munduko lehen erakundea sortu zuten Berlinen, besteak beste, Magnus Hirschfeld sexologoa (ezkerrean, Li Shiu Tong bikotekidearekin). Handik egun gutxira, Ingalaterran, Oscar Wilde (eskuinean) aske utzi zuten.

torea, Eduard Oberg jurista eta Franz Joseph von Bülow idazlea. Hirschfelden etxean bertan sortu zuten Batzorde Zientifiko Humanitarioa eta haren teoria hartu zuten oinarri: homosexualitatea gizonen eta emakumeen arteko “hirugarren sexu” biologikoa zen. Batzordeak ez zuen lortu teoria hedatzea eta onartzea, baina helburu garbia zeukan: homosexualitatea jaiotzetik bazetorren, hautatutako jarrera ez bazen, zuzenbideak ezin zuten zigortu.

1897ko udaberriko aste horretan gertatutakoak ez zuten berehalako al-

daketa ikusgarrikerik eragin. Oscar Wilde “materialki eta espiritualki lur jota” irten zen espetxetik, Frank Harris idazle irlandarraren hitzetan, eta geratzen zitzaizkion urte apurrak erbestean, Frantzia, eman zituen. Hirschfelden determinismo biologikoa barne zatiketarik eta kritikak eragin zituen batzordean. 1929an Hirschfeld bera dimititzera behartu zuten. Beraz, 1933an naziek Batzorde Zientifiko Humanitarioa desegin baino lehen ere, LGBT eskubideen aldeko mugimendu antolatua aitindaria ahulduta zegoen. ●

Baratxurietatik txandalera

Frantsesez, *marchand d'ail* esamoldeak “baratxuri saltzailea” esan nahi du, literalki, baina fruta eta barazki saltzaileak orokorrean izendatzeko erabiltzen zen.

XIX. mendearen amaieran Parisko frutariak jertse berezi batzuk jantzi ohi zituzten eta, *marchand d'ail* laburtuz,

jantziari *chandail* esaten hasi zitzaizkion. Oso erosoak zenez, kirola egiteko erabiltzen hasi ziren eta, jertseari ez ezik, kiroltako galtzei ere txandal esango zioten aurrerago. Bereziki azken bi urtetan, kirola edo beste ezer ez egiteko oso eroso eta aproposa dela frogatu du txandalak. ●



EMPICS